



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA  
Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN  
ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD  
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía  
Circular

## Hondakin arriskutsuen garraiolariak bete beharreko baldintzak eta betebeharrak

1. INGURUNET sisteman jarduera hasi aurreko jakinarazpena aurkeztea, beharrezko informazio eta dokumentazioarekin, URL honetan jasotako prozeduraren arabera:  
<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/01227/web01-a2inghon/eu/>
2. Erantzukizun zibileko aseguru-poliza eguneratua izatea, gutxienez 450.000€-ko zenbateko bermatua duena..
3. Fidantza bat gordailutzea, hondakinen arloko finantza-bermeei buruzko martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretuaren IV. eranskinean ezarritako formularen ondoriozko zenbatekoan.
4. Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea,  
<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/01227/web01-a2inghon/eu/>  
URLan argitaratutako ereduaren arabera, arriskuen analisia egin duela adieraziz, enpresak ingurumen-erantzukizuneko poliza bat eratu eta eguneratuta eduki behar duen zehazteko. Hori arriskuen analisia horren emaitzaren eta enpresak EMAS edo ISO 14001 ziurtagiria duen ala ez kontuan hartuta egingo da. Beharrezkoa izanez gero, ingurumen-erantzukizuneko aseguru-poliza eguneratua izatea, arriskuen azterketa horren emaitza bermatutako zenbatekoan.
5. Hondakin arriskutsuen garraiolariaren komunikazioan adierazitakoa betetzea.
6. Fitxategi elektronikoko eguneratu bat izatea, non garraiolari gisa jarduten duen hondakin arriskutsuen kopurua, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa kronologikoki bilduko diren.
7. Artxibo kronologikoko informazioa 5 urtez gordetzea eta agintari eskudunen eskura uztea, ikuskapena eta kontrola egiteko.
8. Urtero, martxoaren 1a baino lehen, artxibo kronologikoaren edukiaren laburpen-memoria bidali, URL honetan ezarritako ereduaren arabera:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/serv\\_proc\\_comunicacion/copy\\_of\\_copy\\_of\\_copy\\_of\\_p\\_comu/procedures/proc\\_2024220151576748/eu\\_def/adjuntos/ResumenArchivoCronologicoTransportistas.xlsx](https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_comunicacion/copy_of_copy_of_copy_of_p_comu/procedures/proc_2024220151576748/eu_def/adjuntos/ResumenArchivoCronologicoTransportistas.xlsx)
9. Honako hauetan hondakin arriskutsuen garraiolariak ezarritako betebeharrak betetzea: 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa ekonomia zirkular baterako; 553/2020

Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena, eta hura garatzeko gainerako arauak, bai eta, beste araudi sektorial batzuen arabera, aplikatzekoak zaizkien preskripzio teknikoak ere..

10. Agintaritza eskudunei laguntza osoa ematea, azterketak eta kontrolak egin, informazioa bildu, laginak hartu, dokumentazioa egiaztatzeko eta beren eginkizuna betetzeko beste edozein eragiketa egin ahal izateko.